

SEGURTASUNA

Herriaren funtzionamendu egokia bermatu eta herritarren segurtasuna, lehentasun gisa duen Zerbitzua dauka Udalak Udaltzaingoa bidez. Zelan?

1.- Herritarren segurtasuna bermatzeko:

- Aurre Hartzea: Bide publikoak, gune publikoak edo establezimendu publikoak zainduta, irteerak programatuta, egoeraren jabetza bermatuta neurriak hartu eta delitu izaerako ekintzak saihesteko.
- Herritarrei lehen laguntza eskainita, zorabio, jausialdi, heriotza... kasuetan.
- Abisu, gertakari, larrialdi kasuen kudeaketa eginda, agintari zein ikututako eragileei barri emon, herritarrei jakinarazteko bideak martxan jarri eta arrisku egoerak kontrolpean mantenduta.
- Norbanakoen arteko gatazketan esku hartuta, beti be, horrela eskatzekotan.
- 24 orduko telefonozko arreta, urgentzia eta larrialdi kasu guztiei babesa emon, bideratu edo urtenbidea eskaintzeko.
- Asistentzia lana edozein gertakariaren aurrean: Etxeko- indarkeria zein genero-indarkeriaren biktimei lehen momentuko laguntza eskainita, gero kasuz kasu Ertzaintzarekin koordinatuta lan egiteko.
- Herritarren salaketak zein kexak jaso, konprobatu eta urtenbidea emon.

2.- Trafikoaren kudeaketarako:

- Udal-mugarte osoan trafikoa antolatuta eta zuzenduta.
- Kale mozketak zein trafikoa eragin daiketan edozein geratakari kudeatuta.
- Herri barruko bideetan izandako trafiko-istripuekin lotutako atestatuak edo txostenak eginda.

3.- Justizia Administrazioari laguntza eskeinita: Aitorpenak, txostenak, atestatuak, egiaztagiriak eta beharrezko jarduerak burututa zein arau-hauste penalak egitearekin lotutako salaketak jaso eta izapidetuta.

4.- Ikuskapenak zein egiaztapenak egiten dira, Alkatetzak, Estatistikak, Zerbitzu Sailak, Urigintzak zein gainerako udal zein udalaz gandiko zerbitzu-erakundeek behar dabezan eremuen inguruan informazioa eskaintzeko.

5.- Araudien betearazpena bermatzen da, lege-xedapenak, bandoak, ordenantzak, erregelamenduek eta erabagiek eraendutakoaren betepenerako: Gune publikoko jarduerak, etxebizitzak edo lokalak, obrak, animaliak edukitzea, piroteknia, zaratak, oinezko gunea, gazteen lokalak, lizentziak, trafikoa etabar arautzen dituztenak.

6.- Galdutako objektuen jasotzea, Berhaz Bulegoagaz elkar lanean, horien kudeaketa egiteko.

7.- Emaizak hobetzera bidera, koordinazio lana, beste udaltzaingoeekin, inguruko udalekin, Ertzaintzarekin... kasu zehatzak zein beharizan orokorretan elkar lanean aritzeko.

ORDUTEGIA

Urte guztian 24 ordu egunero

HARREMANETARAKO DATUAK

e-posta: udaltzaingoa@bermeo.eus
Tel.: 94 617 91 11 / **092** Larrialdi kasuetan Faxe: 94 688 21 97

Kokapena
Helbidea: [Intxausti, 2](#)

